

ANIZTASUNA BERDINTASUNEAN



Asociación
MATZ
educación en valores

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

ANIZTASUN AFEKTIBO-SEXUALARI
BURUZKO FAMILIA GIDA

Proiektua eta edizioa

Asociación **MATIZ**
educación en valores

info@asociacionmatiz.org

Idazketa

Sara Maza Bustamante (Koord.)
Ane Ortiz Ballesteros

Diseinua eta maketazioa

Asociación Matiz

Lehengarren edizioa

2021

Babeslea



AURKIBIDEA

- 1 Materialaren aurkezpena
- 2 Has dezagun sexuari buruz hitz egiten...
- 9 Aniztasuna onartzeko eta aintzatetsi egiteko ordua da
- 10 “Ez normatiboa” denari buruzko aurreiritziak eta estereotipoak
- 12 Diskriminazioa eta eskubideen urraketa... onartu ahal dugu?
- 15 Baina, zergatik da hain zaila honi buruz hitz egitea?
- 18 Ohiko galderak
- 21 Informazio gehiago izateko...

1. Materialaren aurkezpena

Batzuetan, badirudi zaila egiten zaigula gure seme-alabeekin hitz egitea sexualitateari buruz. Beharbada ez delako hain erraza sexuaren, generoaren eta sexualitatearen eraikuntza ulertzea; beharbada ez dugulako izan gure seguruak gai hau lantzeko; beharbada guri heziketa sexuala izatea uko egin digutelako.

Izan ere, nahiz eta jakitun ez izan, uneoro heziketa sexuala gaude lantzen. Hainbat baliabidez baliatuta uneoro gaude heziketa sexuala egiten: gure iritziak, isiluneak, maitasun adierazpenak, gure lotsak... hori dela eta, beharrezkoa da protagonista rola gure gain hartzea eta onartzea sexualitateari buruzko heziketa umeak nola egiten diren edota preserbatiboen erabilerari buruz hitz egitea baino gehiago dela.

Kalitatezko hezkuntza sexuala gure seme-alabeei zuzenduta egon behar da bere buruak ezagutu ditzaten, onartu eta bere sexualitatea adierazi zoriontsu izan daitezen. Ez bakarrik aniztasuna errespetatzen ikasi, baizik eta aniztasuna baloratzen ikasi. Aniztasun horrek pertsona errepikaezinak eta bakarrak egiten gaitu.

Gehiago sakondu nahi al duzu? Hurrengo orrialdeetan modu errazean partekatu eta argitzen saiatuko gara funtsezko ezaugarri batzuk ulertu ahal izateko hobeto aniztasun afektibo eta sexual hori eta bere garrantzia azpimarratuz; ideia, klise eta estereotipo zaharrek inapurtuz.

Has dezagun...



2. Has dezagun sexuari buruz hitz egiten...

Jaiotakoan, baita aurretik ere, pertsona bakoitzari generoa ezartzen digute gure sexu-organoen arabera. Hau da, bulbarekin jaiotzen bagara, neskak izango gara eta zakilarekin, mutilak.

Une horretatik aurrera, “gizarteratze diferentziala” bezala ezagutzen dugun prozesua hasten da. Kontzeptu hori erabilgarria da deskribatzeko gizarateak sexu-genero sistemaren arabera sailkatzen gaituen modua. Modu horretan, gizarate bizitzan hasteko prozesuan neska-mutilei nola izan eta jokatu behar dugunari buruzko bereizitako identitateak transmititzen zaie, baita ze mota-tako arropak gustatu behar zaizkigun, zein izan behar diren gure gustukoak jokoak eta zaletasunak eta zer espero den gure buruengandik etorkizuneko “gizon” edo “emakumeak” izanda ere. Genero binarismoak gizon/neska/emakume eta maskulino/femeninotzat sailkatzen gaitu arau bezala.

Baina, patroia binario hori pertsona guztientzat baliogarria al da?

Hain erraza dela ez dirudi eta sexu-organoak zehazten gaituen ezaugarri bakarra ez dela. Badakigu sarriena dela kromosoma XX duten pertsonen bagina, uteroa eta obarioak garatzen dituzte bere amaren sabelean. Bestalde, kromosoma XY duten pertsonen zakila eta barrabilak garatzea; baina, gainera, badaude pertsonak kromosoma XX dutenak gorputz maskulinoarekin edo aldrebes. Kromosomen aurkezpen mota ezberdinak aurkitu ahal ditugu ere bai (XXXX, XYY, XYY, XO...)



Ba al zenekien...? ¹

Kromosoma Y beso laburrean dagoen geneak, SRY izenarekin, (beste ezaugarriekin batera) zehazten du enbrio batek barrabilak izatea edo ez. Adibidez, gene hori irakurtzen ez bada mutazio baten eraginez, barrabilak ez dira garatzen kromosoma XY izan arren. Bestalde, kromosoma XX duten pertsonen barrabilak garatu ahal dituzte kromosoma X horri genea gehitzen bada eta horrela irakurtzen bada.

Kromosomez gain, gonadek eta hormonek funtsezko rola dute pertsona bakoitzaren gorputza garatuko den moduan. Izan ere, sexuaren garapena hainbat mailatan garatzen da, adibidez:²

- Kariotipoa (kromosomen antolakuntza, ea XX, XY, XXY, XO, etab. diren.)
- Gonadak (obarioak, barrabilak, obotesia, etab.)
- Hormonak (androgenoak, estrogenoak eta progestagenoak.)
- Barne erreproduktzio organoak.
- Bigarren mailako ezaugarri sexualak (ugatzak, aurpegiko ilea, etab.)

Batzuetan, ezaugarri horietan gauzatu ahal diren ezberdintasunek organo sexualen formakuntzan eragina izan ahal dezakete eta pertsona baten sexuaren zehazpenean, hala nola, gehigarritzko kromosoma edota hormona femenino edo maskulinoen ekoizpen ugaria. Ildo horretan, sexuaren ezaugarri binarioengandik besteratzten diren sexu-organok edo bestelako sexu ezaugarriak dituzten pertsonak pertsona intersexualak edo intersex izango dira.


Garrantzitsua da nabarmentzea intersexualitatea aldakortasun sexualaren aukera oso ezberdinen islada izan daitekeela eta horrek ezin da beti atzeman jaiotzeko unean, sexua ezartzen zaigunean. Hori dela eta, batzuetan ez gara jakitun pubertaroa arte, ezarritako sexuarekin bat ez datozen bigarren mailako ezaugarri sexualak agertzen direnean. Batzuetan, azterketa mediku zehatzik gabe ezin dira ezagutu.

SEXUDUN GORPUTZ BAKOITZA BAKARRA ETA ERREPIKAEZINA DA BAITA HORREN BIZIPENA HALA IZANGO DA ERE.

Horrela, behin pertsonaren sexua ezarrita, bere sexuarengandik espero dugun beste ezaugarri edo parametro kulturalak aztertuko ditugu. Emakumeak eta gizonak izan behar diren modua, egin behar dutena eta iruditu behar dutena zehazten duten ezaugarri horien multzoa generoa da, “maskulino” eta “femeninoa”.

Beraz, generoa eraikuntza kulturala da eta gizarte gehienek garatu eta barneratzen dute bereizitako gizarteratze prozesuaren bidez. Hortik aurrera, helduarorako bilakaeran bereizitutako identitate eta ezaugarri ezberdinak transmititzen zaizkie emakumeei eta gizoni.

Pertsonen sexuarekin lotutako ezaugarrien multzoa non itxura, hizkera eta keinuak hartzen diren kontuan (hau da, emakumea edo gizon izan behar diren espero den modua), genero adierazpena da eta beste motatako ezaugarriak, hala nola, portaera, jarduerak, emakumeentzako eta gizonentzako lana (zer egin beharko luketen) genero rolak dira.³



Beste alde batetik, genero rola adierazi eta onartzeaz gain, pertsonen sentimenduak ditugu, gure burua antzeman dugu eta genero zehatz batekin identifikatzen dugu gure burua. Genero batekin edo bestearekin identifikatzeari genero identitatea deritzogu eta ezarri diguten sexu biologikoarekin bat etorri ahal da edo ez.


Pertsona baten genero identitatea bere sexu biologikoarekin bat badator, (emakumea genero femeninoarekin eta gizonezkoa genero maskulinoarekin), pertsona hori cis generoa edo CIS izango da.



Pertsona baten genero identitatea bere sexu biologikoarekin bat ez badator, pertsona transgenderoa edo trans izango da.


Sexu orientazioak, berriz, gure zaletasun eta nahiekin harremana du eta erakarpene egotearekin edo faltarekin lotuta adierazi daiteke. Pertsonen erakarpene, erotikoa, sexuala, emozionala edo maitasunezkoa dugu beste pertsonetara, nor beste sexukoak izan ahal diren (heterosexualitatea), sexu berekoa (homosexualitatea) edo bi sexuetakoa (bisexualitatea). Neska homosexualak lesbianak dira eta mutilak, gay.

Gainera, pertsona bakoitzaren identifikazio sexualarekin lotuta, erakrpen patroï ezberdinak aurkitu ditzakegu, “normatik” at egonda, hau da, sexu/genero binarismo tradizionaletik at; sexu orientazio konplexuagoa eta ñabardurez beteta aurkezten dute. Horrela, beste pertsonenganako erakrpen erotikoa ez duten pertsonak daude, nahiz eta maitasuna sentitu ahal duten (asexualak); edota identitate guztienganako erakrpena dutenak, hau da, binarismo tradizionala gaindituz eta bere burua ez binariorzat jotzen duten pertsonengan (pansexualak).



Jarraian, jengibre galletaren irudia aurkezten dizuegu. Bere identitatea burmuinarekin, bihotzarekin, sexu-organoekin eta gorputz osoarekin lotura duten lau dimentsioen bidez garatzen da. Pertsonak gure identitatean lau dimentsio horiek modu bateratuan bizitzen dituzte; sexu biologikoa (fisionomia), genero adierazpena (gizarte portaerak), genero identitatea (norberaganako kontzeptua) eta sexu orientazioa (erakrpen afektibo sexuala). Horrez gain, genero dimentsioa gehitzen dugu bereiztutako gizarteratze prozesuaren eragina nabarmendu eta azpimarratzeko.

IDENTITATEA



ORIENTAZIOA

ADIERAZPENA

SEXU BIOLOGIKOA

GENEROA



Zure galleta aztertu al duzu inoiz? Nolakoa da?

Kontzeptu eta definizioetatik haratago, gizakien sexualitatea aniztasunaren jarraipena bezala ulertu behar dugu, jariatza eta aldakorra izanik.

Lehenengo atala bukatzeko, laburbildu dezagun:

Sexua: gizakia gizon edo emakume bezala zehazten duten ezaugarri biologikoak dira.

Generoa: gizarteak sexu bakoitzari modu bereiztuan ezartzen dizkien gizarte-ratzean eraikitako rola, harremanak pertsonalitatearen ezaugarriak, jarrera, portaerak, balioak, botere erlatiboa eta eragina dira.

Genero identitatea: pertsonak bere buruari ezartzen dioten generoari buruzko eskarmentu pertsonala (norberaren pertzepzioa).


Sexu orientazioa: pertsona batek beste pertsonenganako duen erakarpen fisikoa, erromantikoa edo emozionala.

Genero adierazpena: gure portaera eta itxuraren bidez gure generoa adierazteko dugun modua.



3. Aniztasuna onartzeko eta aintzatetsi egiteko ordua da

Garrantzitsua da jakitun izatea pertsona hainbeste sexualitate eredu daudela eta guztiak gure begirune guztia merezi dute. “Arrunta” dena zehazten duen gizarteratze prozesu diferentzialaren bidez ezarrita dagoena, eta izan eta jardun behar garen modua zehazturik (cis eta heterosexuala), aukera bat baino ez da. Kontuan hartu behar dugu “pertsona guztiengan identitate eta errealitate ezberdinek bat egiten dutela orientazioa, generoa edo sexuaz gain, besteak beste arraza, etnia, osasun mentala eta fisikoa, aniztasun funtzionala, etab. horiek guztiak eragina dute pertsona bakoitzaren bizitzeko istorioan eta dituzten bizipenengan”.⁵



BIDEOA: “¿QUÉ ES LA DIVERSIDAD SEXUAL?”

Normatibotik aldentzen diren sexu orientazioa, genero identitatea, ezaugarri sexualak edota adierazpena duten pertsonak LGTBQ+ siglen barnean biltzen dira. Hau da, LGTBQ+ komunitateak honako sigla hauek biltzen ditu: lesbiana, gay, trans, bisexuala, intersexuala. “+” ikurrak (ikur positiboa) sigla bakoitzaren barnean dauden pertsona mota eta beste kategoria batzuk aipatzen ditu, beste sigletan modu zehatzean barneratuta ez daudenak.


Gaur egun oso ezaguna den LGTBQ+ mugimenduak bide luzea egin du mundu osoan bere eskubideen alde eta gaur egun oraindik jarraitzen dute. Ezberdina izatea eta eredu “normatiboaren” barne ez egotea, maila guztietan diskriminazio handia pairatzea esan nahi du, giza-eskubideak urratuz egoera pentsaezinetan ere.

Horrela, homosexualitatea despenalizatzea lortzea (hainbat herrialdetan heriotza zigorra duelarik), pertsona horiek ezkondu ahal izatea edo, soilik, bere sexu ezaugarriak direla eta lan, familia eta gizarte diskriminaziorik gabeko bizimodu askeak izan ahal izatea, oraindik lortzearen helburuak dira.

5 ELOY-GARCÍA, P. (2020): *Creciendo sin armarios. Una guía sobre las realidades LGTBQIA*, Transdiversa. 9. orr.

Ba al zenekien homosexualitatea...

- ... 1973 urtera arte Amerikako Psikiatria Elkarteak “desbideratze sexualtzat” jotzen duen?
- ...1990 urtera arte Nazioarteko Osasun Erakundearen Nazioarteko Gaixotasunen Sailkapenean egon zen?



BIDEOA: “LA HISTORIA LGBT EXPLICADA POR EL COLECTIVO”

4. “Ez normatiboa” denari buruzko aurreiritziak eta estereotipoak

Zer gertatzen da pertsona batzuek munduaren ikuspuntu binarioa hausten dutenean?

Gizartean bi genero onartzen dira eta itxaropen asko daude emakume eta gizon izateko moduari buruz. Harreman “heterosexual” batean nolako harremana izan behar dutenari buruz ere bai. Dituzten genero rola onartu eta antzematen dira gizartean eta, beraz, ezarritako parametroetatik at dagoen pertsona guztiak ikusmiran egongo dira, eraso diskriminatzaileak pairatu ahal izanik “ezberdina” izateagatik soilik.

Diskriminazio egoerak askotan espero denaren portaera ezberdina duten eta ezarritako arauetatik at dauden pertsoneri buruz aurretik dauden aurreiritziek sorrarazten dituzte. Hurrengo esaldietatik edozein ezaguna egiten al zaizu?

AURREIRITZIA

“Nire seme-alabarekin aniztasun sexualari buruz hitz egiteak lesbiana, gay edo transexuala bihurtuko du”

“LGTBIQ+ kolektiboko neska-mutilek ezin dezakete jakin zer diren edo zer nahi duten oraindik helduak ez direlako”

“Pertsona homosexualek eta transexualek gaixotasun mentala dute”

“Lesbiana gehienek mari-mutilak dira eta gay gehienek maneratsua dira”

“Pertsona bisexualak biziosoak dira eta ez dakite zer nahi duten”

“Pertsona transexualak berea ez diren gorputzean harrapatuta daude”

“Asexualak diren pertsonen arazo hormonalak edo ume aroko trauma dute”

“Pertsona intersexualak ez dira ezta neska ezta mutilak ere”

ERREALITATEA

Errealitatearekiko guztiz kontrako. Ikerketek baieztatu dute aniztasun sexualari buruzko ideiak eta jakintzak partekatzeak ez du inolako “aldaketarik” sorrarazten pertsonen orientazioan edo identitatearengan. Ostera, hartzaileen autoestimua sendotu egiten da eta begirune eta tolerantzia jarrerak garatzen dira bere buruekiko eta besteekiko, indarkeria anitzak ekidituz.

Neska-mutilak zer diren eta zer nahi duten oso jakitun dira. Identitatea uste baino lehen erakitzen da, 2 edo 3 urteen aldera. Horrez gain, gure desioaren orientazioa gure bizitzan zehar aldatu daiteke.

1990ko maiatzaren 17an Nazioarteko Osasun Elkarteak homosexualitatea gaixotasun psikiatrikoetatik kendu zuen. Halaber, 2022 urtean aurreikusita dago elkarrekin transexualitate zerranda kentzea gure identitatea eta desioaren orientazioa erakitzen dugun modua bakarrak eta anitzak bait dira.

Genero adierazpena era desioaren orientazioa gauza ezberdinak dira. Batzuetan, mutiko gay batek adierazteko modu femenoagoa izan dezake baina horrek ez du esan nahi gay guztiek bere identitatea modu berean adierazten dutenik. Pertsona bakoitzak adierazpen modu ezberdina du.


Bisexualitatea beste orientazioen bezain onargarria da eta nahi dutena badakite. Ez dago bisexuala izatearen eta desio erotikoaren igoeraren arteko harremanik.

Transexualitate egoera bizitzen duten pertsona askok ez dute bere gorputza baztertzen, gizartearen begirada aldatzea behar dute soilik. Izan ere, zenbat pertsona cisgeneroak bere gorputzarekin txarto sentitzen dira? Halaber, pertsona trans bakoitzaren bizipena bakarra da.

Pertsona asexual batzuk arazo hormonalak izan ahal duten arren (beste desio orientazioa duten pertsonen moduan), askok frogara asko izan dituzte maila hormonalak ohiko tartean egonda. Orobat, pertsona asexual askok ez dute inolako ume aroko traumarik izan.

Gorputz intersexualarekin jaio izanak ez du esan nahi genero identitaterik ez izatea, hirugarren generoa izatea edo pertsona ez binarioa ez izatea. Genitalen arabera batezbesteko femeno edo maskulinoko gorputzarekiko aldatzen den gorputz batekin jaio izana esan nahi du, gorputz guztiak bakarrak dira!

Garrantzitsua da jakitun izatea “aurreiritziak ezjakintasunetik edo “ezberdina” denaren eraginpean egon ez izatetik datoz eta eragile askok aurreiritzi homofobiko, transfobiko eta bifobikoak sorrarazten dituzte. Horien artean, ohikoenak sinesmen erlijiosoak dira”.⁶



BIDEA: “UN PASO MÁS EN LA DEFENSA DE LA DIVERSIDAD, MIKEL GRANDE. TEDxYouth@Amposta”

6 JURČIĆ, M., LANGARITA ADIEGO, J.A., VALLVÉ, X., SADURNÍ, N. (2018): *Trabajar con víctimas de delitos de odio anti-LGTB. Manual práctico*. Universitat de Girona. 20. orr.

5. Diskriminazioa eta eskubideen urraketa... onartu ahal dugu?

Patroi “normatiboari” doitzen ez diren pertsoneri buruz sortzen dugun estereotipo eta aurreiritzi mota horrek jarrera eta jarduera diskriminatzaileak sortzen ditu eta hein handiagoan eta txikiagoan bere eskubideak, askatasunak, integritate fisiko edota mentala eta duintasuna urratuz.


Jarrera batzuk pertsona hauen diskriminaziotik eta estigmatizaziotik jarrera bortitzetara igaro daitezke, batzuetan delitu larriak izanik. Kolektibo horiekiko fobia nagusiak homofobia, transfobia eta bifobia dira. Horiek jarrera, sentimendu eta jarduera negatiboak dira, bere burua lesbiana edo homosexualtzat jotzen duten pertsonenganako diskriminazioa eta bortizkeria barne, baita trans eta bisexualtzat ere.

Jakitun izan behar gara homofobia, bifobia eta transfobia arrazoi sozialek, kulturelek, historikoak eta abarrek sortutako estereotipoek, ezjakintasunak, gaizki-ulertuak, informazio faltsuak edo beldurrek sortzen dituztela. Hori dela eta, ezberdintasunengana ikuspuntu berri batetik hurbildu behar gara.



Batzuetan, umiliatuta edo gutxietsita sentitzearen beldurraren ondorioz, LGTBI+ kolektiboko pertsona askok, besterik gabe, itxurak egitea eta isiltzea aukeratzen dute horrelako egoerei aurre ez egiteko, familiarik eta/edo lagunetatik aldentuz. Baina ziur gaude ados gaudela hori ez dela bidezkoa, ez litzatekeela inor mugatu behar bere adierazpen-askatasunean, ez eta hirugarrenen epaiketek beldurtu ere, pertsona guztiok aske bizi nahi dugulako eta eskubidea dugulako.

Garrantzitsua da kontuan izatea gaur egun oraindik zailagoa dela homosexualitatea onartzea heterosexualitatea baino. Zenbat aldiz galdetu ote diote gure alabari ea mutilagunik duen? Zergatik ontzat jotzen da mutilak gustatzen zaizkiola? Gure seme-alaba heterosexualtzat jotzen badugu eta hori horrela ez bada, nola uste duzu sentituko dela? Ze zailtasun izango ditu sentitzen duena adierazteko orduan?



BIDEA: "CON AMOR, SIMÓN. SOY HETERO"

Gure seme-alabek sexu bereizkeria pairatu ahal izango dute?

Non?

Balizko arrazoiak

Zer egin dezakegu?

Ikastetxean/
parkean/
eskolaz kanpoko
jardueretan/
kirol guneetan...

Irakasleek, zuzendaritza taldeek, familieek, entrenatzaileek, eta abarrek aniztasun sexualarekiko sentsibilizazio eskasa dute eta hori arrazoi nagusietarikoa da jarrera homofoboak, bifoboak edo transfoboak sortzeko.

Informazio eta sentsibilizazio falta hori gorroto diskurtsoekin lotuta, gure gizartean hain finkatuta daudelarik, bereizkeriak sorrarazi ditzakete gure seme-alabeekiko, ezberdintzat jotzen badituzte.

Arlo digitala ez da arlo analogikoaren islada baino. Hau da, arlo fisikoan dauden jarrerak digitalean ere gertatzen dira, izan ere, azkarrago eta gehiago eta eragin handiagoarekin.

Halaber, pantailek segurtasun eta inpunitate sentsazioa eman dezakete, eta horrek ahalbidetzen du "errazagoa" gertatzen da min egitea. Errazten ere bai, biktimaren erreakzioak ikusten ez bait dira.

Gomendatzen dugun lehen gauza babes eskaintzea da. Babestu, entzun eta gure laguntza baldintzarik gabe duela sentiarazi.

Bere autoestimua sendotu, bere sendotasunak azpimarratu, pertsona bakarra eta zoragarri bihurtzen duten ezaugarriak izanik.

Kulpatik aldendu. Erraza da gertatu den egoera gertatu egin dela bera den moduko delako edo zerbait egin duelako. Puntu horretan, garrantzitsua da ikustaraztea berak ez duela ezer gaizki egin, gizartearren begirada dela aldatu behar dena.

Gaiari buruzko erreferentzia erakundea edo elkartera jo non informazioa lortu ahal dugun eta heziketa jaso ahal den laguntzarik onena eskaini ahal izateko.

Bilatu pareko egoerak bizi izan duten edo momentuan bizitzen ari diren familiak. Horrek lagunduko du funtsezko laguntza sarea sortzen bereizkeria egoerei aurre egiteko.

Halaber, beti gomendatzen dugu bizi den egoera salatzea. Pertsona erantzuleekin komunikatzea kasu bakoitzean, begiralea, irakaslea edota zuzendaritza taldea beharrezkoa balitz. Garrantzitsua da hezkuntza komunitate osoak konpromesua egitea gune seguru, atseginak eta begirunetsuak aniztasunarekiko sortzea.

Saiatu lasaitzen eta esan zuzena dena egin duela kontatzean, horrela arazoa konpontzeko soluzio bat lortzen lagundu ahal izango bait duzu.

Saia zaituz bere autoestimua eta bere buruarekiko konfidantza sendotzen.

Lagundu frogak gordetzen. Pairatutako jazarpena islatzen duten mezuak eta argazkiak biltzea.

Birpasatu estrategiak eta pribatutasunerako aukerak eta sare sozialen erabilera ona kanpoko mehatxuak arlo digitalean murrizteko.

Badakizu nor den jazarpen egoera hori sorrarazten duena, saiatu ahal zara berarekin elkarrizketa bat izaten eta bere familiarekin. Ezin bada, salatu egoera erakundeetan.

Hitz egin zure seme-alabaren irakaslearekin egoeraren jakitun izateko eta prozesua lagundu ahal izateko.

Arlo horretan esanguratsu diren erakunde edo elkarteetara jo dezakezu non egoera mota honi buruzko informazioa eta balizko soluzioak ezagutu ahal dituzun, ezagutu ahal izango duzu ere bai beste familiekin pairatutako pareko egoerak eta partekatu. Ziur aski, horrek egoera hobetzeko tresnak eta indarra emango dizkizu.

Kontuan izan behar dugu pertsona bakoitzak jarraitzen duen prozesua ez hain ikusgarri diren orientazioa hartzeko orduan guztiz pertsonala eta anitza dela. Inoiz ere ez dugu nahi gay, lesbiana, bisexuala edo trans izateagatik halaberrez bereizkeria egoerak pairatu ahal ditugularen ideia transmitzea; bait daude neska-mutilak bere orientazio eta identitatearen adierazpena ez dutela bat ere modu dramatikoan bizi izan. Garrantzitsuena da edozein motatako aurre iritziak ekiditea eta aniztasunarekiko gune atsegina eta begirunetsua eskaintzea gure familiengan eta etxeetan.

Ba al zenekien urriaren 11n armairutik irtetzeko nazioarteko eguna ospatzen dela LGBTQ+ pertsonen eskubideak gogoan izateko?

6. Baina, zergatik da hain zaila honi buruz hitz egitea?

Gaur oraindik hainbat mito, tabu eta sinesmen daude oraindik sexualitateari buruz modu naturalean hitz egitea oztopatzen digutenak. Gure haurtzaroen jaso dugun heziketa sexuala (irekiagoa edo ez), eta aurretiaz ditugun bizipenak eta eskarmentuek, besteak beste, gure aurretiko jarrera eta aurre egiteko modua baldintzatzen dute gure familian eskaintzen dugun heziketa sexuala.

Izan ere, gure seme-alabekin sexualitateari buruz ari garenean, praktika erotikoak baino gehiago landu behar dugu eta, dudarik gabe, koitoak eta erreprodukzioa baino gehiagoz. Gure elkarrizketetan garrantzitsua da aniztasunaren begirada lantzea eta honako hau kontuan izatea:

- Pertsonak izaki bakarrak eta errepikaezinak gara. Ez daude berdinak diren bi eta, hortaz, kontuz ibili behar gara esaldi batzuekin, hala nola: “homosexuallak... dira”, “transexuallak... dira”. Askotan estereotipoak pertsonak ezagutzea oztopatzen digute laguntzea baino.

- Badaude “lehen aldi” asko. Koito heterosexuala aukera bat baino ez da eta erotikaren adierazpena genitalak baino askoz gehiago da.
- Garrantzitsua da praktika asortzaileei buruz hitz egitea (haurduntze planifikaturik eta transmisio sexualeko gaixotasunik hartzeko arriskurik ez duten goza ditzakegun praktika guztiak).
- Indarkeriaren prebentzioaren gakoa aniztasunean egindako hezkuntza eta pertsona gisa adierazteko eta bizitzeko modu ezberdinetan datza.⁷

Gure seme-alabekin hitz egiteko gomendio batzuk:

- Gure elkarrizketa umearen garapen unearen eta adinaren arabera moldatu. Laguntzeko, liburuak, ipuinak eta ikus-entzunezko materialak erabili ditzakegu, adinari moldatuta kasu guztietan.
- Epaitu baino hobeto entzuten badugu, arreta eta interesa adieraziz.
- Jarrera naturala izan eta gauzak duten izenarekin izendatu.
- Saia zaitetz gezurrekin edo aitzakiekin ez erantzuten. Ez da beharrezkoa ipuinak sortzea. Gezurrak guri ez esatea nahi badugu, ez genuke gezurrik esan behar.
- Beti ere lehenengo pertsona erabilita erantzun. Errealitatea ulertzeko hainbat modu daude eta nik eskaintzen dudana nirea da, baina ez du zertan egokiena edo bakarra izan behar.
- Batzuetan, erantzun onena beste galdera bat da. Erabili ditzakegu islada galderak deiturikoak, hau da, bere galdera berberarekin erantzuten diegu baina zerbait gehituz: “zer behar duzu nik azaltzea.... buruz”. Sarritan, galdera horiek ez dituzte beraiek sortzen, baizik eta beste pertsonekin duten kontaktuan. Galderaren jatorria jakiteak gure erantzunaren edukia hobetzea ahalbidetu ahal digu...⁸

7 AZQUETA COCHARRO, I. (2014): *Educar en la diversidad afectivo-sexual desde la familia. Cómo educar a favor de la igualdad de valor y contra la violencia por motivos de orientación sexual e identidad de género*. CEAPA. 39. orr.

8 EL MUNDO, Sapos y princesas: <http://saposyprincesas.elmundo.es/consejos/psicologiainfantil/como-responder-a-las-tipicas-preguntas-de-sexo-de-nuestros-hijos/>

- Eguneroko edozein egoeraz profitatu, edozein liburuz, filmaz eta abarrez identitateari, desioari, maitasunari, emozioei buruz hitz egiteko. Gure seme-alabak ez galdetzea ez du esan nahi sexualitateari buruz hitz egin ezin dugula.
- Entzuteko, hitz egiteko eta laguntzeko jarrera erakutsi; sentitu dezatela garrantzitsua beraiek direla, erantzuna baino.
- Kontuan izan elkarrizketa ezin dela inposatu behar, pertsona baten ganora onarekin bakarrik ez du balio. Hitz egitera ere ikasten da. Entzumena landu behar da eta horrek isiltasun ezerosoak errespetatzean ere bai datza.



7. Ohiko galderak

* Sei urteko ume bat homosexuala dela sentitu dezake?

Bai. Lesbiana eta gay askok bere orientazioa ezaguera dutenetik adierazten dute; baina homosexualitatea helduaroan sentitzen eta bizitzen has dezakegu ere bai.⁹

Orientazio sexuala haurtzaroan oso arin ager daitekeenez, gomendagarria da horri buruz hitz egitea eta kontuan izatea umeen orientazioa onartzeko jarrera adieraziz. Nahiz eta ikerketa zientifikoetan lekukotasunen eta ondorioen artean disparekotasuna egon, 7 edo 8 urte aldera uste da ume askok jakin dezaketela norenganako erakarpena sentitzen duten.

* Zer egin beharko nuke beste senideek ez badute onartzen nire seme-alabaren orientazio sexuala?

Mota horretako egoerak ez dira errazak. Lehenik eta behin, saiatu behar gara onarpen falta horren atzean zer dagoen ulertzen. Beldurra, larritasuna egon daiteke balizko bereizkeria edo erasoengatik, informazio falta edota homofobia, besteak beste. Hala eta guztiz ere, zalantzarik gabe, horrek ez du gaitzespena bidezkotzen. Saiatu behar gara uneoro hitz egiten eta era gure senideengana hurbiltzen liskarrak, eztabaidak edo balizko egoera bortitzak adin gutxikoen aurrean ekiditzen.

Garrantzitsuena gure seme-alabak gure laguntza baldintzarik gabe izango duela jakitea da, erru sentimenduak agertzea ekidituz eta uneoro azpimarratuz bere identitatearen, gaitasunen eta trebezien alde positiboak.

Halaber, interesgarri gerta daiteke gure seme-alaba laguntzea babes sare on baten eraikuntzan, pareko bizipenak dituzten pertsonekin kontaktuan jarriz, homofobiaren kontra lan egiten duten elkarteetara hurbilduz, etab.

* Noiz hasten dira umeak bere gorputzenganako jakinmina garatzen?

Pertsona guztiak sexuatuak gara jaiotzatik hil arte. Beraz, gure bizitzako lehenengo urteetan zehar sexualitatea dugu ere bai. Egiaz, haurren sexualitatea bere ezaugarri propioak ditu eta helduen sexualitatekin urrun dago eta, hortaz, ezin dugu aztertu bere jarrerak eta sentitzeko moduak gure begirada jadanik heldua abiapuntutzat hartuta.

Hurtzarotan, umeek bere gorputzei buruzko gauzak ikasi eta ezagutu nahi dituzte. Badauden desberdintasunak somatzen dituzte eta jakinmina naturala dute horri buruz. Urte bateko eta biko neskek eta mutilek genitalak sarritan ikutzen dituzte biluzik daudenean, bainua hartzen dutenean edota fardela aldatzean. Horrez gain, kontuan izan behar dugu garapenaldi horretan oraindik ez dute lotsa garatu eta, beraz, garrantzitsuena errietak eta zigorrek ekiditea da.

Pediatriak honako jarrera hauek “normaltzat” jotzen ditu 2 eta 6 urteen artean: genitalak ikutu eta masturbatu, bai publikoki bai pribatuki, bere pareko genitalak begiratu edo ikutu edo anaia-arreba edo lehengusu-lehengusina, saiatzea pertsona helduak biluzik ikusten edo norbaiten alboan zutunik geratu edo esertzea.

* Zer egin dezaket nire seme-alaba pornografia ikusten aurkitzen badut?

Zalantzarik gabe internet eta dispositibo mugikorren konbinazioak pornografiaren iristea eta barreiapena erraztu du. Izan ere, Save the Children-en ikerketa berri batek¹⁰ baieztatzen du 10 nerabetik 7k pornografia ikusten dutela, lehen aldiz 12 urterekin helduta. Honako hau errealitatea izanik, zaila da (ia ezinezkoa) eduki horretara heltzea debekua bidez.

Errealitate horren aurrean familiak Pornografia maintream-ean (gehien kontsumitzen dena) transmititzen diren ideiak batez ere indargabetzea da gure eginkizun nagusia: botere harremanak, kontsensu falta, gorputz normatiboak, indarkeria, desio femeninoaren ikusezintasuna, komunikazio falta, preserbatiboaren ikusezintasuna, etab. Gure seme-alaba pornografia ikusten aurkitzen badugu, lasaitasunetik, elkarriketa sorrarazten saiatu beharko ginateke bertan aurkeztzen den eredu erotikoa des-erakitzeke eta anitzagoa, seguruagoa, begirunetsuagoa eta kontsensu handiagoa duen eredu eskaini.

* Nire seme-alabak ez du bere identitatea argi. Nola lagundu ahal diot?

Hain finkatuta dauden genero estereotipoek gure identitateari buruzko zalantzak sorrarazi ahal dizkigu gure bizitza osoan zehar. Estereotipoak oraindik oso finkoak dira eta sexuari egotzitako ezaugarri batzuk ez partekatzeak ziurtasunik eza sorrarazi dezake. Hala ere, zalantzak hauek igarokorrak izan ohi dira.

Zalantzak denbora aurrera egin ahala mantentzen badira, funtsezkoa da gure seme-alabaren eskarmentua entzutea eta baliozkotzea. Era berdinean, beti ere da gomen-dagarrria informazioa lortzea eta profesional edo elkarte batengana jotzea, laguntza bereiztua jasotzeko prozesuan zehar.

Hala eta guztiz ere, une hori heldu baino lehen, funtsezkoa izango da izateko eredu anitzak eskaintzea haurtzarotik eraiki dezaten imajinarioa non izateko eta sentitzeko modu anitzak dauden bere sexualitatea modu pozgarriagoan eta atseginagoan bizitzeko bere buruarekiko garatuz, aldi berean, besteenganako begiruneko jarrerak.

* Noiz izan beharko nuke sexualitateari buruzko “elkarrizketa”

Ez da beharrezkoa ezta esertzea ezta sexualitateari buruzko hitzaldi luzea ematea. Sexualitatea, identitatea, desioaren orientazioa... ez da elkarrizketa bakarrean ikasten den zerbait. Prozesu graduala da non umeez, pixkanaka pixkanaka, urteak aurrera egin ahala ikasten doez bere adinaren eta bere gaitasunen arabera.

Gogoan izan sorturiko zalantzak argitzen joan ahal garela aniztasunezko ikuspuntua gehituz beti ere; baina galderarik ez balego, ez dugu gaia hitz egiteaz ekidin behar. Erakutsi liburuak, ipuinak edota filmak non garapen ebolutiborako egokiak izanda sexualitatea modu positiboan azaltzen den. Ideia pixkanaka pixkanaka sexualitateari eta aniztasunari buruz hitz egitea da eta batera ikastea gaia nola landu.

Etorkizunean eskertuko duzu aurreiritzirik gabeko sexualitateari buruzko elkarrizketa izan ahal izatea.



8. Informazio gehiago izateko...

Terminoen glosarioa:

<http://www.rainbowproject.eu/material/es/glossary.htm>



Erreferentzia web orrialdeak:

* **BERDINDU**: Eusko Jaurlaritzaren informazio eta arreta zerbitzua genero eta sexu aniztasunarekin lotura duten gaiei buruz.

<https://www.euskadi.eus/que-es-berdindu/web01-a2berdin/es>

* **ALDARTE**: Gay, lesbiana eta trans pertsonen arreta gunea.

<https://www.aldarte.org/es/>

* **NAIZEN**: Adingabeko transexualen senideen elkarte.

<https://naizen.eus/>

* **GEHITU**: Euskal Herriko Gay, Lesbiana, Trans, Bisexualen eta Intersexualen elkarte. <https://www.gehitu.org/>

* **BIZIGAY**: Aniztasun eta askatasun sexualareko elkarte.

<https://bizigay.eus/>

* **Matiz Elkarte** - Balioen Hezkuntza.

<https://www.asociacionmatiz.org>



BIBLIOGRAFIA

ALDARTE (2006): *Guía para orientar a las familias. Sexualidad infantil, diversidad de orientaciones sexuales y nuevos tipos de familias.*

AZQUETA COCHARRO, I. (2014): *Educación en la diversidad afectivo-sexual desde la familia. Cómo educar a favor de la igualdad de valor y contra la violencia por motivos de orientación sexual e identidad de género.* CEAPA.

D'ELIO, F; SOTELO, J; SANTAMARIA, C. y RECCHI, J. (2016): *Guía básica sobre diversidad sexual.* Presidencia de la Nación. Ministerio de Salud de Argentina.

ELOY-GARCÍA, P. (2020): *Creciendo sin armarios. Una guía sobre las realidades LGTBIQA,* Transdiversa.

JURČIĆ, M., LANGARITA ADIEGO, J.A., VALLVÉ, X., SADURNÍ, N. (2018): *Trabajar con víctimas de delitos de odio anti-LGTB. Manual práctico.* Universitat de Girona.

KATJA, S. (2021): *¿Solo dos sexos? La ciencia dice otra cosa.* Deutsche Welle (DW). Berreskuratuta: <https://p.dw.com/p/3rS0z>

PARRA, N. (2018): "Sexualidad. Cuerpos, identidades y orientaciones". *Colección de guías sobre derechos sexuales y reproductivos de las mujeres jóvenes. Vol. 4.* Servicio de Planificación y Programas, Instituto Canario de Igualdad.

SANJUÁN, C. (2020): *(Des)información sexual: pornografía y adolescencia.* Save the children.